
FORU FUNDAZIOAK / FUNDACIONES FORALES

Azkue Fundazioa
Fundacion Azkue

Fundazioaren, honen helburu eta aktibitatearen deskribapena

Azkue Fundazioa 2009 urteko amaieran sortu eben Bizkaiko Foru Aldundiak (bere Kultura sailak), Bilboko Udalak, EHU/UPV-k, Deustuko Unibertsitateak eta Euskatzaindiak.

Fundazioak Euskararen Etxean dauka bere egoitza, Bilboko San Inazio auzoan, eta bere sorreratik etxe honen kudeaketa osoaz be arduratzen da.

Azkue Fundazioaren xedea da ingurune digitalean euskararen erabilera eta presentzia sustatzea; horretarako, IKT eta Interneteko sektorearen akuilu, bilgune eta erakusleho izango da, lehentasuna emonez euskaraz eginiko eduki eta baliabideen ezagutzari, sorkuntzari eta zabalkundeari.

Azkue Fundazioak mota guztietako jarduerak antolatzen dauz hiru ardatz honeen inguruan:

- **Akuilua:** Fundazioak berrikuntza sustatzen dau ingurune digitalean; horretarako, laborategi gisa jarduten dau eta ekimen eta proiektu barritzaileak sustatzen dauz.
- **Bilgunea:** Fundazioak ingurune digitaleko eragile aktiboen arteko harremanak sustatzen dauz eta komunitatea indartzen dau, arreta berezia eskainiz Bizkaiko erabiltzaileei.
- **Erakuslehoia:** Fundazioa euskarazko ingurune digitalaren erreferente izan nahi dau eta dagoeneko sortu dana eta sortzen ari dana gordailu egoki batean biltzen dau.

Descripción de la Fundación, sus objetivos y su actividad

Azkue Fundazioa nace a finales de 2009, de la mano de la Diputación Foral de Bizkaia (por medio de su departamento de Cultura) y con el apoyo del Ayuntamiento de Bilbao, las Universidades EHU/UPV y de Deusto y Euskaltzaindia.

La Fundación tiene su sede en Euskararen Etxea, en el barrio de San Ignacio de Bilbao y, desde su creación se encarga también de su gestión integral.

Azkue Fundazioa tiene como objetivo fomentar el uso y la presencia del euskera en el entorno digital; siendo estímulo, punto de encuentro y escaparate del sector de las TICs e Internet, dando prioridad al conocimiento, la creación y la difusión de contenidos y recursos en euskera.

Azkue Fundazioa organiza todo tipo de actividades alrededor de tres ejes:

- **Estímulo:** fomentando la innovación en el entorno digital, actuando como laboratorio y promocionando iniciativas y proyectos novedosos.
- **Punto de encuentro:** fomentando la relación entre los agentes activos del entorno digital y fortaleciendo la comunidad, prestando especial atención a los usuarios de Bizkaia.
- **Escaparate:** siendo referente del sector del entorno digital y reuniendo en un adecuado contenedor todo lo que ya se ha creado y lo que se está creando.



**Azkue Fundazioa
Fundacion Azkue**

Azkue Fundazioak Euskararen Etxea kudeatzen dau ondoko zereginak eginez:

- Eraikinak eskeintzen dauzen zerbitzu publikoak kudeatu eta mantendu: obrak, matxurak, mantentze-lanak, garbiketa, harrera, beroketa, elektrizitatea,...
- Eraikina bisitariarentzako baldintza egokietan egon daiten zerbitzuak kontratatu eta erantzukizunak kudeatu: zergak, aseguruak, irisgarritasun ziurtagiria,...
- Lantik-egaz batera, jendeak erabiltzen dauzen ekipamenduak (informatikoak, elektronikoak,...) erabilgarri mantendu.
- Eraikinaren ondasunak kudatu eta beharrezko materiala erosi.
- Euskararen Etxeko programazioa bai eta publizitate eta komunikazio kanpainak sortu, ekoiztu eta kudeatu.

Eraikinean Euskararen Interpretazio Zentroa dago eta Azkue Fundazioak kudeatzen dau:

- Zentrora datozen bisitariak kudeatu, antolatu eta kontrolatzen dauz.
- Zentroaren inguruko komunikazioa bere gain hartzen dau, horretarako publizitatea kanpainak antolatu eta kudeatzen dauz.
- EAEko ikastetxeekaz harremanetan dago bisitari kopurua handitzeko.
- Zentrora bisitan datozen ikastetxe, elkarte, turista eta abarren datu baseak kudeatzen dauz.

Desde su función gestora de la Euskararen Etxea, la fundación aborda además las siguientes tareas:

- Gestionar los servicios públicos que ofrece el edificio y su mantenimiento: obras, averías, mantenimiento, limpieza, recepción, calefacción y electricidad...
- Hacerse cargo a nivel administrativo de las responsabilidades que se derivan y contratar los servicios necesarios para que el edificio presente las condiciones necesarias para ser visitado: impuestos, seguros, certificados de accesibilidad...
- En colaboración con Lantik, velar por el buen estado de los equipos (informáticos, electrónicos, ...) a disposición del público.
- Gestionar los bienes del inmueble, así como la compra del material necesario.
- Idear, producir y gestionar la programación así como las campañas de publicidad y comunicación de la Euskararen Etxea.

El edificio cuenta con un Centro de Interpretación del Euskera, para el que Azkue Fundazioa realiza labores de gestión:

- Gestiona, organiza y controla los visitantes al Centro.
- Difunde, comunica y promociona el Centro y para ello, organiza y gestiona todas las campañas de publicidad que considere.
- Mantiene relación con los centros escolares de la CAV para fomentar las visitas al centro.
- Gestiona las BBDD de centro escolares, asociaciones, grupos, turistas etc que acuden de visita al centro.



**Azkue Fundazioa
Fundacion Azkue**

- Zentroan erabiltzen diren ikus-entzunezko material eta aplikazio informatikoak sortzen, eguneratzen eta mantentzen dauz.
- Bisitarietzako eduki barriak asmatzen dauz, bisitarien perfiletara egokituz: ikasleak, familiak, umeak, turistak,... Sortzen diren material barriak kudeatzen dauz.
- Ikastetxeek zentroa bisitatzen dabenean, bisita osatzen dabenean tailer didaktikoak prestatzen dauz.
- Zentroko bisitak, lantegi osagarriak eta kultura programa egiteko baliabideak (materialak eta pertsonak) kudeatzen dauz.
- Crea, actualiza y mantiene las aplicaciones informáticas y materiales audiovisuales que se utilizan en el Centro.
- Idea nuevos contenidos para visitas adaptadas a diferentes públicos: estudiantes, familias, niños, turistas... Gestiona los nuevos materiales que se creen.
- Idea los talleres didácticos que se celebran como parte de la visita al Centro por parte de los grupos escolares.
- Gestiona los materiales y recursos técnicos y humanos, tanto para la realización de las visitas al Centro, como para los talleres didácticos y la programación cultural.

Helburuen bilakaera

Euskeraren presentzia Interneten sustatzeko, Azkue Fundazioak, ondokoa, egin eta egiten dau:

- Sentiberatze-lana: euskera guztiz garatutako hizkuntza dala transmititzeko ingurune digitalean espezializatutako feria, jardunaldi, mahai inguru eta bestelako gertaerak antolatzen dauz edo horrelakoetan parte hartzen dau, bai eta bere blogean maiztasunez publikatu (www.azkuefundazioarenegunkaria.eus).
- Formazio eta trebakuntza: gazteentzako kultura digitala, baliabideak eta gaitasun digitalei buruzko lantegiak antolatzen dauz.
- Baliabideak: euskarazko baliabide digital barrien sorkuntza babesten dau (blogak, sare sozialak, edukiontzia, jokoak,...), guzti honek sarean euskera naturaltasun osoz erabili daitekeela erakusten dau.

Evolución de los objetivos

Para fomentar el uso del euskera en Internet, Azkue Fundazioa ha aportado y aporta:

- Sensibilización: intenta transmitir que el euskera es una lengua plenamente desarrollada organizando y participando en ferias, jornadas, mesas redondas y otros eventos especializados en el ámbito del entorno digital, así como publicando periódicamente en su blog (www.azkuefundazioarenegunkaria.eus).
- Formación: organizando talleres y programas para jóvenes sobre cultura digital, herramientas y competencias digitales.
- Recursos: colaborando en la creación de nuevos recursos digitales en euskera (blog, redes sociales específicas, contendores, aplicaciones, juegos, ...) mostrando así que podemos hacer un uso total de la red en euskera.



**Azkue Fundazioa
Fundacion Azkue**

- Social-median euskera dinamizatu eta zabaldu (batez ere bere Facebook, Youtube, Twitter eta Instagram perfilen bitartez).

Interpretazio zentroaren kudeatzailea danetik Azkue Fundazioak urteko 6.000 bisitarien gitxieneko kopurua mantentzen dau 2014 urtea gerostik. COVID19aren eraginez zenbaki honeek ezin izan dira 2020 eta 2021 urteetan mantendu.

Lortu beharreko helburuak

Azkue Fundazioak 2022 urterako ondoko helburuak ezarri dauz:

- Euskararen Etxeko kudeaketa eta erabilgarritasuna hobetu, Bilboko eta Bizkaiko euskaldunentzako erreferentziazko toki bihurtu daiten. Horretarako zenbait xede talde barrientzako (euskategiak, diaspora, euskarazaleak...) programak sortuko dauz. 2022 urtean COVID19 aurreko garaietako kopuruetara bueltatzeko helburua jarri dau (2019 urtean 6.700 bisita erregistratu ziren).
- Aisialdiagaz lotutako ekintzetan euskera sustatzen jarraitu gazteak hizkuntzara ondo pasatzeko eta gozatzeko asmoaz hurbildu daitezten.
- Internet euskeraz ere erabili daitekeela ziurtatzeko plataformak garatzen jarraitu.
- Teknologia eta euskerazko teknologiaren inguruan trebatzen eta informatzen jarraitu. Horretarako "Jokoteknia" jardunaldia bostgarren urtez antolatuko dau eta 2Digitalizazioaren Hariak" programa Bizkaiko beste eskualdeetara zabalduko dau.

- Dinamización y difusión del euskera y la tecnología en medios sociales (fundamentalmente a través de sus perfiles de Facebook, Youtube, Twitter e Instagram).

Como gestor del centro de Euskararen Etxea Azkue Fundazioa mantiene desde 2014 una afluencia de visitas que supera las 6.000 anuales, exceptuando los años 2020 y 2021, afectados por el COVID19.

Objetivos a alcanzar

De cara al año 2022 Azkue Fundazioa quiere:

- Mejorar la gestión y usabilidad de la Euskararen Etxea, de manera que se convierta en el lugar de referencia para la comunidad euskaldun de Bilbao y Bizkaia. Para ello, creará nuevos programas destinados a nuevos usuarios (euskaltegis, diáspora euskarazales,...). Como objetivo cuantitativo, se ha fijado volver a las cifras anteriores al COVID19 (el año 2019 se registraron 6.700 visitas).
- Seguir promocionando el uso del euskera a través de actividades vinculadas al ocio, haciendo que, especialmente los jóvenes, se acerquen al euskera desde la diversión y el deseo de pasarlo bien y disfrutar.
- Seguir desarrollando plataformas que contribuyan a que las personas puedan hacer un uso total de la red en euskera.
- Seguir formando e informando sobre tecnología y tecnología en euskara. Para ello, organizará por quinto año consecutivo la jornada sobre video-juegos "Jokoteknia" y extenderá el programa "Digitalizazioaren Hariak" a otras comarcas de Bizkaia.



**Azkue Fundazioa
Fundacion Azkue**

- Euskeraren Interpretazio Zentroaren erakusketaren barritze proiektuagaz aurrera jarraitu, eta erakusketa barria 2022 urtean inauguratzeko helburua bete.

Urte anitzeko programak eta honeen finantzazioa

Azkue Fundazioak ez dau aurreikusten 2022. urtean urte anitzeko programarik martxan jarriko dauanik.

Kapital aurrekontuaren helmuga

Kapital aurrekontuan ondoko proiektuak aurreikusi dira:

- Aplikazio informatikoa, online baliabideak, produktu teknologikoak: 10.000,00€
- Aktibo materialak: 40.000,00€

- Continuar con el proyecto de renovación del área expositiva del Centro de Interpretación del Euskara, con el objetivo de inaugurar la nueva exposición dentro del año 2022.

Programas plurianuales y su plan financiero

La Fundación Azkue no prevé ningún programa plurianual para el año 2022.

Destino específico del presupuesto de capital

El presupuesto de capital está destinado a abordar los siguientes proyectos:

- Aplicaciones informáticas, recursos online, productos tecnológicos: 10.000,00€
- Inmovilizado material: 40.000,00€